



# Durangaldeko Mugimendu Feministak zaintza sistema iraultzeko dinamika hasi du

Zaintza lana “negozioa” barik, “ardura soziala” izateko “borroka” hasi du mugimendu feministak. Martxoaren 8an ipiniko dute “lehenengo mugarrria”



## ZAINTZA • EKAITZ HERRERA

Zaintza sistema “krisian” dagoela eta, egoera horri buelta emateko dinamika aurkeztu du asteon mugimendu feministak. Eskualde osotik etorritako militante feministak Durangoko Santa Ana elizaren aurrean batu ziren astelehenean, esku artean daukaten bide orri berria aurkezteko. Argi diote: zaintza lana “krisian” dago eta horren aurrean “borroka dinamika” bat hasiko dute guztia

“iraultzeko”. Hainbat dira identifikatu dituzten gabeziak. Batetik, “etxe barruko, lantokietako eta hartu-emanetako” zaintza lanak daude; “Klase xeheko emakumeek” jarraitzen dute zaintza horiek egiten. Eta instituzioek esku hartzen duten zaintza lanekin antzerakoa gertatzen dela aipatu dute, izurriak “argitara” atera baitu “adineko pertsonentzako egoitza batzuetako egoera jasangaitza”. Mugimendu feministaren

esanetan, “egoera ez lehertzea etxeko langileek bizi duten esplotazio egoerari” zor zaio, “eurak baitira familia eta instituzioak ailegatzen ez diren beharrianak asetzera heltzen direnak”.

Marko hori kontuan hartuta, mugimendu feministak “zaintzarako eskubide kolektibo baten alde” egin du, “persona guztiek bizitza osoan zehar zaintza askatasun, duintasun eta konpromiso baldintzetan emateko eta jaso-

tzeko duten eskubidearen alde”. Auzia “mendekotasun egoeratik harago” doala diote, zaintza lana “negozioa” barik “ardura soziala” delako. Alde horretatik, zaintza erantzukizunari “pribilegiozko egoeratik ihes” egitera deitu dute.

Durangaldeko Mugimendu Feministaren ibilbide berri hau Euskal Herriko Mugimendu Feministak hasitako bidearen zati da. Mugimenduak “Zaintza Sis-

tema Publikoa eta Komunitarioa” mamitzeko oinarriak ipini zituen 2022ko otsailean. Bideari ekiteko, topaketa bat egin zuten Gasteizen, eta ordutik hona landutakoak *Denon Bizitzak Erdigunean* izeneko txostenean jaso dituzte. Bertan, landu beharreko zaintza eremuak, bakoitzaren ezaugarriak, egungo egoerari buruzko hausnarketak eta etorkizunean lortu beharreko helburuak markatu dituzte.

## anboto

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2023ko martxoaren 3a  
21. urtea - 927. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarrí.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Gaurko berdintasuna,  
biharko jasangarritasuna

Tratu txarren biktima diren emakumeentzako arreta psikologikoa eta zerbitzu juridikoa.

946 200 492



MARTXOAK

EMAKUMEEN  
NAZIOARTEKO  
EGUNA



# “Afrikan ere emakumeak aspalditik dabilta eskubideen alde eta kargu inportanteetan borrokan”

Urtero egiten duen moduan, Euskal Herriko malitarren kultur elkarteak hainbat ekintza antolatu du martxoaren 18rako Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira. Aurten lurreta aukeratu dute euren ekitaldia egiteko

MB • JOSEBA DERTEANO

**Habi Datouk 14 urte daramatza lurretan bizitzen, Mariam Traorek 19 Elorrion, eta Rokiadou Doucourek 10 Durangon. Hirurak Afrika mendebaldeko Mali herrialdekoak dira. Traore Euskal Herriko malitarren kultur elkartearen presidentea da eta beste biak kideak dira. Martxoaren 18rako hainbat ekintza antolatu dute lurretan. Askondoko aterpean batuko dira, 16:00etan, Martxoaren 8ko aldarrikapenekin bat eginda.**

**Zein da ekimen honen sorburua?**

**Habi Datou:** Malin egiten dugun moduan, Martxoaren 8a hemen ere ospatu gura dugu Fasoden elkartetik. Aurten lurretan antolatzea erabaki dugu. Lehenengoz ospatuko dugu lurretan eta Durangaldean. Eskerrak ematen dizkiogu udalari laguntzagaitik.

**Mariam Traore:** Munduko emakume guztientzat egun garrantzitsua da eta gura duten denak Askondoko aterpera gonbidatzen ditugu. Etorri daitezela ikustera eta parte hartzera. Guretzat horixe da inportanteena.

**16:00etatik aurrera argazki erakusketa bat egongo da ikusgai. Zelako argazkiak dira?**

**H.D.:** Emakume biri buruzko argazkiak egongo dira erakusketan. Aoua Keita da bietariko bat. Afrikako lehenengo emakume diputatua izan zen, 1958an. Lan handia

emango ditugu: Nortzuk ziren, zer egin zuten...

**M.T.:** Emakumeek kargu inportanteak bete ditzaketela erakutsi zuten.

**Zuentzat garrantzitsua da Malin emakumeen eskubideen alde aritu direnak ezagutaraztea?**

**Rokiadou Doucoure:** Bai. Askotan jendeak uste du emakume afrikarrok etxean geratzen garela, gizonak baino ez direla kanpora irtetzen lan egitera, eta ez dugula ezer egiten. Baina ez da horrela. Ez gara etxeko andreak bakarrik. Afrikan ere emakumeak aspalditik dabilta eskubideen alde eta kongresuetan edo beste toki batzuetako postu inportanteetan borrokan. Alde horretatik, ezjakintasun handia dago.

**18:00etan 'Mouso Ka Do' izeneko ikuskizuna hasiko da. Izenburu horrek zer esan gura du?**

**M.T.:** 'Emakumearen eguna' esan gura du gure hizkuntzan. Martxoaren 8a dela-eta antolatu dugu ekimena eta horri egiten dio erreferentzia.

**Eta zertan datza?**

**M.T.:** Maliko dantza tradizionalak erakusteko ikuskizuna da. Yembé batek hainbat erritmo ipiniko du eta erdigunera irtengo gara txandaka, banan-banan edo binan-binan, erritmo horiek dantzatzera. Ez da koreografia bat. Natural datorkigun zerbait da, odolean daramagu. Inprobisaziotik nahikotxo duenez, ez daude ikuskizun berdin bi. Ikuskizun bakoitza bakarra izaten da.

**R.D.:** Malin hainbat kultura dago, eta bakoitzak bere dantzak ditu, eta dantza mota asko egingo dugu.

**H.D.:** Guztira, 40 bat emakumek eta abar batuta, 80 bat batuko gara. Denak ez dira Durangaldekoak; Bilbotik eta beste toki batzuetatik ere etorriko dira.

**H.D.:** Arropari dagokionez, beren-beregi Martxoaren 8ra begira diseinaturiko arropa da. Diseinu asko dago eta urtetik urtera aldatu egiten dira; aurten urdin koloreko arropa da. Gehiengoak diseinu eta kolore horixe aukeratu du bozketa bidez. Malin egindako arropa da. Malin diseinatu eta landu dute, eta handik ekarri dugu.



Habi Datou, Mariam Traore eta Rokiadou Doucoure.

**M.T.:** Maliko janaria probatzeko aukera ere egongo da. Mokadutxoak aterako ditugu, batez ere hemengo jendeak Maliko janaria dastatu dezan.

**Malin zein egoeratan daude emakumeen eskubideak zuen ustez?**

**H.D.:** Oraindino asko dago egiteko. Baina, apurka, emakumeak geroago eta independenteagoak dira. Ez dira etxean geratzen. Komertzioetan eta administrazioko postuetan lan egiten dute eta ikasketak egiten dituzte. Beraz, pausoak ematen dabilta beste toki batzuetan lez.

**Zeintzuk dira Fasoden elkartearen helburuak? Zer egiten duzue urtean zehar?**

**M.T.:** Hainbat zeregin dugu. Alde batetik, hona datorren jendeari agiriak edo izapideak egiten laguntzen diogu. Bestetik, urtean zehar ekintzak egiten ditugu. Esaterako, iaz Munduko Arrozak ekimeneko antolaketan ibili ginen lurretan, eta oso ondo irten zen. Gustura gaude izan zuen harreragaz. Aurretik, Durangon ere egin ditugu gauzak; deitu izan digutenean, ekimenetan parte hartu dugu. Gure helburua Maliko kultura zabaltzea da. Euskal Herrian Maliko komunitate nahiko handia dagoela esango nuke. Gure elkartearen 150 lagunetik gora gaude. Gainera, gurea ez da lehenengo elkarte. Lehenengoak Bilbon sortu zuten.

**'Mouso Ka Do' Maliko dantza tradizionalak erakusteko ikuskizuna da. Inprobisaziotik nahikotxo duenez, ikuskizun bakoitza bakarra izaten da**

egin zuen Maliko emakumeen eskubideen alde eta gizarteko beste hainbat arlotan. Oso pertsona garrantzitsua da. Argazkien bitartez ezagutarazi gura dugun bigarren emakumea Mariam Kaidama Cisse da. Maliko lehenengo emakumezko lehen ministroa izan zen 2011n. Hau ere figura inportantea da guretzat. Euren gaineko azalpenak

## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

# MARTXOAK 8

IURRETA
2023

<b>MARTXOAK 3</b> <p><b>LA BODA DE ROSA</b> ZUZENDARIA: IZABE DOLLAIN - 2023. URTEA 18:00 IBARRETXE KULTUR ETXEA FILMA OHARRA: ANDEREBIDE</p>	<b>MARTXOAK 5</b> <b>MILLA MOREA</b> 12:00 ASKONDO ONDOREN TXISTORRADA!! IRATIA GARCIA ETX. GUBERNAITZAILEAK ZATOKI MEREZ JANTZITAI!
<b>MARTXOAK 8</b> <b>EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA</b> EKINTZAK - ASKONDO 12:30 GOIZEAN, IKASTETXETATIK ASKONDORA MANIFESTAZIOA 13:00 "ZAITZAK ETA ADINKERIA" HITZALDIA 14:00 EMAKUMEEN BAZKARI HERRIKOIA (bakoitzak bere bazkaria) Izen-ematea: martxoak 6rarte 15:00 BINGO MUSIKATUA 16:00 "LUZE EDO MOTZ" BAKARRIZKETA 17:00 "HERRITIK ZEHAR" MUGIMENDUA 18:00 ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA HERRIKO ELKARTEI ETA NORBANAKOEI IRAKURKETAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA BIDLAKO ZAIL. ONDORREN, MANIFESTAZIOA IURRETA - DURANGO info: Ibarretxe Kultur Etxea   gizarte-ongizate@iurreta.eus   94 621 53 72   688 696 503	<b>MARTXOAK 11</b> <b>BAZKARIA - MUSIKA</b> EDUKITZAILE: THERESA SILLAS - OTSABARREN 28RATU 14:00 MAIUR KALEAN AUTONBIA 19:00 ITZULERA - AUTONBIA ABORO - jatetxea info: Ibarretxe Kultur Etxea / Anderbide (fona: 94 621 53 72)
<b>MARTXOAK 17</b> <b>ANTZERKIA</b> "LA REINA DEL ARGIA" - QUIERO TEATRO 19:00 IBARRETXE KULTUR ETXEA SARRERA GONBIDAPENARIEZIN	<b>MARTXOAK 18</b> MALIKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA Askondo - Fasoden Maliko elkarte "MOUSSO KA DO"
<b>MARTXOAK 23 - 30</b> IBARRETXE KULTUR ETXEA Autodefentsa feminista ikastaroa 18:00 - 20:00 SAIO 2 IZEN-EMATEA: MARTXOAK 6-17	

**GARAI • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Gazteen eguneroko kezka eta galderetatik abiatuta, Geruzak-ek kultura, feminismoa, soziolinguistika eta pentsamendua lantzen ditu, euskaraz. Sortu berri den ikus-entzunezko proiektu honetan eskualdeko hainbat gazte parte hartu dute. Esaterako, atzo, Gasteizen, ikus-entzunezkoaren hirugarren atala aurkeztu zuten eta bertan Iruri Altzerreka garaitarrak parte hartu zuen.

**Geruzak egitasmoan parte hartu duzu. Zer izan da zuretzat bertan parte hartzea?**

Plaza bat suposatu du, bertan nire iritzia plazaratzeko aukera izan dudana plaza bat. Zortea ere suposatu du. Azken batean, gutxi batzuk aukeratu gaituzte egitasmo honetan parte hartzeko, gutxi batzuek izan dugu bozgorailu hau geure iritzia emateko. Bestalde, ardura bat ere izan da. Izan ere, bozgorailua ematen dizutenean horrekiko izaten den ardura esaten duzu.

**Zelako esperientzia izan da?**

Oso esperientzia polita eta aberasgarria. Gure kasuan, bost gazte grabatu genituen atal hauek, aurretik elkar ezagutzen ez genuen bost gazte. Bakoitza Euskal Herriko punta batekoa izan da; errealitate desberdine-

## “Askotan berba egiten da gazteoi buruz, baina gero ez ditugu espazioak izaten geure iritzia plazaratzeko”

Atzo, Gasteizen, Geruzak egitasmoaren hirugarren ikus-entzunezkoa aurkeztu zuten. Geruzak proiektuan Iruri Altzerreka Martínez garaitarrak parte hartu du eskualdeko beste batzuekin batera. Geruzak gazteei zuzenduriko ikus-entzunezkoa da

tako jendea batu ginen. Beraz, alde horretatik oso esperientzia aberasgarria izan da.

Niri pertsonalki proiektu honek beste gazteen errealitateak ezagutzeko balio izan dit, eta elkarri entzunda amankomunean zer gauza ditugun jakiteko.

**Gai bat emanda, horren inguruan aritu zarete.**

Gure aurretik, bost gazte hiru gai landu zituzten: desira, askatasuna eta ondo bizitzea. Eta euren ostean, guk beste hiru gai landu genituen: boterea, sormena eta taldeatasuna.

**Gazteok berbetan ipini zaituztete. Ez da horrelako proiektu asko ikusten. Zuretzat zer suposatu du horrek?**

Askotan berba egiten da gazteoi buruz, baina gero ez ditugu espazioak izaten geure iritzia plazaratzeko. Zorionez, azkenaldian horrelako espazio gehiago sortzen dabilta. Proiektu hau, esaterako, egitasmoak berak ondo dioen moduan, gazteengandik gazteentzat egindako proiektu bat

da. Batez ere, batxillergoko eta unibertsitateko ikasleei zuzenduta dago. Beraz, geruzak.eus-en sartu eta bertan kuxkuxeatzera animatuko nuke jendea.

**Bideo hauekin gazteok gai konkretu batzuen inguruan zer pentsatzen dugun jakiteko aukera dago**

**Bideoak gazteei baino ez daude zuzenduta?**

Berez, gazteentzat planteatu zuten egitasmoa, eta bideo bakoitzak badu bere materiala klasean-eta lantzeko. Baina, jakina, edozeinek ikusi ditzake bideoak. Nire ustez, bideoak edozeinentzat dira aberasgarriak. Azken batean, bideo hauekin gazteok gai konkretu batzuen inguruan zer pentsatzen dugun jakiteko aukera dago.



**Iruri Altzerreka Martínez**


Geruzak egitasmoa  
GARAI | 2000

# M8 - EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

**MARTXOAK 4 ZAPATUA**

**NICARAO DANTZA TALDEAREN IKUSKIZUNA**  
20:45ETAN OLAZAR FRONTOIAN

**AFARIA ETA DANTZALDIA 21:00ETAN**  
OLAZAR FRONTOIAN

Tiketak 15€  Olga, Paularen Zokoa, Sorgin, Karobi, Castet, Rakelen denda eta Udaletxea

**MARTXOAK 4-5 ZAPATUA - DOMEKA**

**HELMUGA ELKARTEAK EGINDAKO**

**LANEN ERAKUSKETA** Liburutegi zaharrean.

Zapatua 9:30-14:00 eta 17:00-20:00.

Domeka 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

**MARTXOAK 8 EGUAZTENA**

**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

Kontzentrazioa. Udaletxe aurrean. 12:00.

**MARTXOAK 10 BARIKUA**

**"DESDE LA MUJER QUE SOY" SIGNODANTZA**  
IKUSKIZUNA.

ARYMUX ANTZERKI ETA DANTZA KONPAINIA.

Liburutegi Zaharrean. 18:00-19:30.

Zaldibarko Udalak bat egiten du Mugimendu Feministak eta Emakumeen Elkarteek antolatutako ekitaldiekin

**INFORMAZIO GEHIAGORAKO**  
**berdintasuna@zaldibar.eus**  
946827016



**ABELTZAINZA • EKAITZ HERRERA**

Saioa Manzidor Zillonizek (Zornotza, 1980) urte ugari darama Zornotzako emakume nekazari eta artisauen azokan parte hartzen. Azoka martxoaren 11n izango da. Karpa bat, 18 postu eta txosna bat egongo dira. **Ordutegia 10:00etatik 15:00etara izango da.**

**Azokaren 25. edizioa izango da. Gogotsu zaude?**

Bai. Urtero-urtero azokara etorri eta jeneroa erosten didaten bezeroak ditut. Beste bezero askok ezagutu ezagutzen naute, baina beharbada ez dugu tratu gehiegirik elkarregaz; eta azokak hori lantzeko aukera ematen du. Zornotzan asko saldu dut azken urte hauetatik hona. Beti da polita herrian bertan azoka egitea.

**Zelako azoka da? Ekoizleek elkar ezagutzen duzue?**

Edizioaren arabera, azokan egoten garenok ez gara betikoak, aldatzen joaten gara. Iaz, adibidez, euskal jantzi tradizionalak ekoizten dituzten herrikideak izan ziren azokan. Elkarregaz batu ginen, komentatu, argazki bat elkarregaz atera... Politia izan zen. Gainerakoan, azoka aldatuz joaten da.

**Salmenta aldetik, zelakoa da azoka?**

Plaza ona da. Zornotzan azoka bi egiten dira urtean eta bietan parte hartzen dut. Biak izaten dira arrakastatsuak. Jende dezente hurbiltzen zait. Txahal laurdena eramaten dut normalean, 60-70 bat kilo. Ezin naiz kexatu. Zornotzan ondo saltzen dut.

**Berdurak postuko mahai gainean ipinita saldu daitezke, baina okela saltzea beste kontu bat da. Eramaten duzu hozkailurik bertara?**

Bai. Hozkailu-espositore moduko bat eramaten dut. Normalean okela-sortekin lan egiten dudanez, hiru edo bost kiloko sortak osatu eta horietxek ipintzen ditut saltzen. Erretiluak ere eramaten ditut, eta horietan ere ipintzen dut okela salgai. Xerrak, gisatzeko okela, zankarroia, txuletaren bat, okela xehatua... lauzpabost erretilu ipintzen ditut okela mota bakoitzetik. Horrez

# “Emakume nekazarien eta artisauen azoka berezia izaten da, badu zerbait desberdina”

Saioa Manzidor abeltzaina Emakume nekazarien eta artisauen azokan egongo da datorren zapatuan, Zelaieta parkean



Saioa Manzidor  
Zilloniz  
Abeltzaina  
ZORNOTZA | 1980

gainera, hanburgesa mordo ere eramaten dut, eta plantxa bat ere bai, hanburgesa txiki batzuk momentuan kozinatu eta pintxo modura saltzeko. Egia esan, horri eskerrak hanburgesa nahikotxo saltzen dut. Jendeak probatu egiten du, mokadutxo bat jan, eta gozo dagoela ikusten du. Horrela, errazagoa da gero okela saltzea. **Beraz, hanburgesak plantxan gertatzea amu ederra da gero okela saltzeko.**

Bai. Gogoan dut beste herriren bateko azokan ezin izan genu-

la halako plantxarik ipini. Eta igarri genuen alde. Normalean saltzen dugunaren erdia saldu genuen. Hanburgesak oso erakargarriak dira erreta salduta. **Biolur elkarrekin 2021ean Bizkaian eta Gipuzkoan egindako ikerketa batek ondorioztatu zuen nekazariak batez beste ez direla hilean 1.200 euro poltsikoratzera heltzen. Ikerketak ortugintza ekologikoan lan egiten zutenei egiten zien erreferentzia. Okelaren sektorea urruti dago errealitate horretatik?**

Faktore asko dago. Hemen ere

ez duzu soldata finko bat. Urte amaierara ailegatuta, urte osoan zehar aurrezten egon zaren hori poltsikoratzten duzu. Eta, bestalde, instituzioen laguntza publikorik barik hau bideraezina da. Inbertsio handiak egin ditugu eta oso ondo ikertuta daukagu zeintzuk diren soldata bat ateratzeko baldintzak. Atzean laguntzarik izan ezean, ez zara bizimodua ateratzera ailegatuko. Gu nahiko ondo gabilta, baina, jakina, soldata bakarra dugu. Ni-re senarrak kanpoan eta hemen

lan egiten du. Orduak infinituak dira, eta, horrez gainera, honek bere erritmoak ditu. Gogoan dut behin, auzoko elkartean afaltzen geundela, jantokitik irten eta kortara joan behar izan genuela atoan, behia txahala egiten zegoelako. Horrelako egoerak nork ordaintzen ditu lan estra modura? Inork ere ez. Soldata bat? Bai, baina ordu asko sartzeaz gainera, ez duzu oporrik. Hemen ez daude beste lan batzuetan dauden abantailak.

**Nondik hasi egoera aldatzen? Politika publikoetatik? Kontsumo ohituretatik? Ekoizleen lanaren garrantzia nabarmentzetik?**

Lana baloratzen ez den mundu batean bizi gara. Baloratzen dena ez da lana, dirua baino. Berdin oporretan zoazenean, arropa erostera zoazenean zein jatetxe batera zoazenean. Arazoa orokorra da. Eta Euskal Herriak bere zentzua edo bere lurra galtzerik gura ez badu, zeozer egin behar du. Baina aldaketa hain da sakona, hain errotikoa, ez dakidala aldaketa nondik hasi. 60 urtegar ezingo diogu gaur egungo erritmoari jarraitu. Ganaduagaz hobby modura bai, jarraitu daiteke, baina lan erritmo honez ez. Orain hamar urte hasi ginen honengaz, eta negu bakoitza geroago eta gogorragoa da. Oso lan fisikoa da biontzat, eta askotan ez dugu deskantsurik. Diru laguntzak izanez gero, bere gauza onekin eta txarrekin, gustura egiteko lana litzateke.

**Datorren zapatuko azokari begira, zein deialdi egingo zenuke?**

Jendeari esango nioke etortzeko. Azoka polita da, berezia. Iruditzen zait beste azoken aldean honek baduela zeozer desberdina. Jatekoak eta artisautza, biak batzen ditu eta giro polita egoten da.

## EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Programazio berezia  
martxoaren 3tik 24ra



MARTXOAK

8

www.abadiño.org

# “Zaintzak ezin du negozio izaten jarraitu”

LABek greba deialdiak egin ditu egoitzetan, Martxoaren 8rako, apirilaren 3, 4 eta 5erako eta maiatzaren 15, 16, 17, 18, 19 eta 20rako



**Eider Bravo  
Arana**

**Durangoeko egoitzako  
LAB-eko arduraduna**

**DURANGO | 1985**

aukera mugatzen digu. Egunero korrika gabiltza, ez gara dena egitera heltzen. Ratioa handitu behar da; langile gehiago behar da zaharren egoitzetan, lehenbailehen.

LABek ratio proposamen berri bat aurkeztu du eta horren alde gabiltza borrokan: egunez gerokultore/zaintzaile bat lau egoiliarreko izatea, gauetz 2 gerokultore/zaintzaile 15 egoiliarreko eta 24 orduz erizain zerbitzua izatea, eta gutxienez erizain bat 16 egoiliarreko.

Ratio hauek langileon osasunean ere badute eragina; presioa dugu, estresa, ez heltzearen tristura eta amorrua, besteak beste.

**Prentsa oharrean hauxe esan duzue: "Zaintzak ezin du negozio izaten jarraitu, gutxi batzuk aberasten diren bitartean asko pobretu egiten garelako".**

Zaharren egoitzetako langileok lan publiko bat egiten dugu eta gure lana ez dago errekonozituta. Lan baldintzek eta kobratzen dugun miseriak bigarren mailako langile lez kokatzen gaituzte. Aldundia da zahar-etxeen titularra, baina zerbitzu publikoa enpresa pribatuen eskura uzten du. Enpresek negozio bat ikusten dute eta horrek eragin zuzena du langileengan zein erabiltzaileengan. Beraz, zaintzak ezin du negozio izaten jarraitu.

**Lehenengo greba eguna Martxoaren 8rako deitu duzue. Zergaitik?**

Martxoaren 8a borroka eguna da emakumeontzat, eta guk lan baldintza okerren biktima izaten jarraitu dugu. Emakume izate hutsagaitik gutxiago kobratzen dugu. Zahar-etxeetan, oso lan baldintza kaskarrak ditugun emakumeak gara gehiengo. Beraz, argi eta garbi esan dezakegu Aldundiak, pertsonen zaintzan funtsezkoa den sektorea pribatizatzeke politikagaz, boteretik langileak explotatu eta gaizki tratatzen dituela, euren erantzukizuna saihestuz eta egoitzen kudeaketa esku pribatuetan utziz. LABek zaintza lanak publiko bihurtzeko eskatzen die erakundeei. Horregaitik guztiagaitik zaharren egoitzetako langileok arrazoi asko dugu Martxoaren 8an greba egunei ekiteko.

**Greba egunez gainera, Kalbarioko Martxara eta baraualdietara ere deitu duzue.**

Aste Santuko datak kontuan hartuta, Kalbarioko Martxa egitea erabaki dugu, egungo baldintzetan gure lana benetako kalbarioa delako. Beraz, apirilaren 3an, 4an eta 5ean oinezko martxa bat egingo dugu sektorearen prekaritatea salatzeke. Azkenik, maiatzaren 15etik 20ra baraualdia egingo dugu Aldundiaren aurrean. Edozein borroka-tresna erabiliko dugu entzun diezaguten, eta ez gara geldituko lan baldintza duinak lortu arte.

## GREBA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen astean Bilbon emandako prentsaurrekoan, LAB sindikatuko hainbat ordezkari Bizkaiko zaharren egoitzetan bizi den egoera "jasanezina" salatu zuten, eta 10 eguneko greba deialdia egin zuten. Eider Bravo Durangoeko egoitzako ordezkariak egoeraren berri eman du.

**Azken hileotan, egoitzetako zaintzaileak mobilizatu egin zarete, baina badirudi zuen egoera ez dela hobetu eta grebara jo duzue. Zein egoeratan zaudete orain?**

Urte bateko ziklo mobilizatzaile batetik geroz eta publiko egin ditugun azken hamar greba egunak ez dira ez lehenengoak ez azkenak izango. Egoitzetako langileon egoerak ez du hobera egin, izan ere, gure hitzarmen kolektiboaren negoziazioak blokeatuta jarraitzen du patronalaren aldetik; urte luze batez patronalak ez du gure lan baldintzen inguruan berba egin gura izan. Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak beste alde batera begiratzen jarraitzen du. Aldundia da zahar-etxeetako titular tasuna duena, eta zerbitzua pribatizatzen duena zerbitzu publiko honen eskumena irabazi asmoa duten enpresen eskura utzita. Horregaitik, Aldundia zein patronala gure egoeraren erantzule egiten ditugu.


Zaharren egoitzetako langileon egoera ez da berria; eskualde ho-


netan, denok bizi eta sentitu dugu Ermuko Abeletxe egoitzan pandemian gertaturikoa. Pribatizazioak eta zaharren egoitzen egoera prekarioak eragin zuzena dute langileengan zein erabiltzaileengan. Langileok erabiltzaileei ematen diegun arreta ez da duina, ez da nahikoa. Lan kargak ito egiten gaitu eta ezin dugu behar den beste denbora pasatu erabiltzaileekin.

Gurea guztiz feminizatutako sektorea da, emakumeak gara sektore honetako gehiengo. Ez da kasualitatea emakumeak zaintza lanetan aritu behar izana, bai etxeetan eta baita gure lanpostuan ere. LABek soldata arrakalen datuen txostena atera du azken astean, eta azpimarratu gura nuke oso gogorra dela ezagutzea sektore feminizatuetan sektore maskunizatu bano %90 gutxiago kobratzen dugula. Sektore honetan itzela da lanaren prekarizazioa, eta gure lan baldintzak jokoan daude, enpresen etekin ekonomikoaren mesedetan.

**Egungo ratioak "ankerrak" direla salatu duzue. Zelan eragiten dizute zuei?**


Zaharren egoitzetan ezartzen den ratioa ez da nahikoa, eta guk egunero sufritzen dugu honen eragina, azken batean ratio hauek erabakitzen baitute zenbat langile behar den erabiltzaileak zaintzeko. Eta horrek erabiltzaileei arreta integral eta oso bat eskaintzeko





Martxoaren 12an, 21:00etan

# Athleticen eta FC Bartzelonaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: martxoak 6.

**Okm:**  
*batzen gaituen  
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



**anboto  
kide**



**Cristina Gutiérrez Meurs**

Artista eta aktibista

MADRIL | 1966

## “Umeen lapurreta frankismoagaz lotu da beti; orduan hasi zen, baina 90eko hamarkadan jarraitu egin zuen”

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen duen erakusketa ipini du Cristina Gutiérrez Meursek Durangoko Arte eta Historia museoan; martxoaren 19ra arte egongo da zabalik erakusketa; Gutierrezek berak berbaldia emango du, martxoaren 9an, 18:00etan

**DURANGO • ARITZ MALDONADO**

**Cristina Gutiérrez Meurs Bilbon bizi da hainbat urtetatik hona. Artista eta ekintzailea, azken urteetan frankismo garaian lapurturiko haurren gaia jorratu izan du bere artean, izan liburu formatuan, izan instalazio edo margoetan. ‘Egiteko ditugunak’ erakusketa ikusgai egongo da museoan egunotan.**

### Zeintzuk dira egiteko ditugun gauzak?

Emakumeak planetako biztanleriaren erdia gara. Antzinako garaietatik, sistema patriarkatuaren ondorioz hainbat biolentzia mota sufritu behar izan dugu emakumeok. Hain zuzen ere, horietxek dira egiteko ditugunak. Batzuk larriagoak dira besteak baino, garrantzitsuagoak, edo urgentekoak, baina asko dira. Munduan asko dugu egiteko oraindino.

### Erakusketa ez da ume lapurtuei buruzkoa bakarrik.

Genero desberdintasunaren ondorioz hainbat biolentzia mota dago. Horiatariko batzuek hartu-eman zuzena dute amatasunagaz. Haurren lapurretak genero biolentzia eta estatu biolentzia dira. Urte luzez aritu dira horretan, eta beti ahalegindu dira hori ezkutarazten. Umeen lapurretarena frankismoagaz lotu den gaia izan da betidanik, garai hartako emakume talde baten aurka egin zena, baina ez du estatu krimen etiketa hori eduki. Patriarkatuak osatzen duen egituraren beste adar bat ere bada, eta hori biolentzia mota desberdinen parte da. Beheko solairuan dagoen instalazioa, *Trapos sucios*, adibidez, feminizidiei buruzkoa da. Esan dudana moduan, biolentzia mota

desberdinei buruzko lanak erakutsi gura nituen, baina, egia esan, ume lapurtuen gaiari garrantzi berezia eta ikusgarritasuna eman gura nizkion, eta merezi duen garrantzia aitortu. Garazi Arrizabalaga museoan zuzendariak badaki asko arduratzen nauen gaia dela, eta gai konplikatu dela ikusarazteko. Instalazio hau berau, Bilboko La Taller galerian egon zen, baina ia inor ere ez zen joan ikustera, eta prentsan ere ez zen agertu. Guztiz oharkabean igaro zen. Krimen hauen salaketak mindu egiten du.

### Zergaitik?

Denbora luzean gauzatu den krimen bat delako. Kontu hau guzti hau frankismo garaian hasi zen, baina 90eko hamarkada ondo sartuta egon artean ere jarraitu zen hau egiten. Orduan, jakina, "de-

## M8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA EGITARAUA

**25**  
OTSAILAK

“HIRU KORTSE, AZUKRE ASKO ETA BRANDY GEHIEGI” (Euskaraz)  
Kamikaz Kolektiboa  
**Antzerkia**  
Zuzendaritza/aktoreak: Erika Olaizola, Iraia Elias eta Amancay Gaztañaga  
19:00. Berrizko Kultur Etxean  
6€ (Bazkideak 4€)

**3**  
MARTXOAK

“ERREKA MARI” (Euskaraz) - Txotxongilo Taldea  
**Antzezleak:** Enkarni Genua eta Manolo Gomez  
17:00. Berrizko Kultur Etxean  
4€ (Bazkideak 3€)

**4**  
MARTXOAK

“LAS QUE LIMPIAN” - A Panadaria eta CDNren eskutik  
19:00. Berrizko Kultur Etxean  
8€ (Bazkideak 6€)

**8**  
MARTXOAK

**M8 IKASTETXEETAN**  
**M8, ZAINTZA DENON LANA DA.** Lortu dezagun batera!

**M8 BERRIZKO MARTXA!** - Udaletxetik Olakueta Plazara  
Herritar orori dei egiten diogu mobilizazio bateratuen parte har dezan!  
**Deitzaileak:** Azeri Gorriak, Berrizko Emakume Migratuen Elkarteak,  
Gure Izarrak eta Berrizko Udala deialdira atxikitzen da.  
19:00 Berrizko Udaletxean

**11**  
MARTXOAK

“NEOMAK” - Kontzertua  
19:00. Berrizko Kultur Etxean  
8€ (Bazkideak 6€)

**23**  
MARTXOAK

**KAFEMINISTA LITERARIOA.**  
JENISJOPUN liburuari buruz hitz egiteko taldea, **UXUE ALBERDI**ekin  
**Antolatzailea:** Azeri Gorriak  
18:00tik Aurrera. Gaztelekuan - **Doan**  
Izen-ematea: [azerigorriak@gmail.com](mailto:azerigorriak@gmail.com) / Berrizko Liburutegian

**25 eta 26**  
MARTXOAK

**TAILERRAK: AUTODEFENSA FEMINISTA.**  
Autodefentsa ikasi nahi duten emakume guztientzat  
**Formatzailea:** Esther López, Safo eskola  
10:30-14:30. Berrizko Gaztetxean - **Doan**  
Izen-ematea: martxoak 22 azken eguna  
☎ 603 83 74 71 / ✉ [berdintasuna@berriz.eu](mailto:berdintasuna@berriz.eu) / 📞 946 82 45 25  
Hautzaindegi zerbitzua egongo da aurrez eskatuta





mokratikoa" den herrialde baten historian agertzen den orbana da. Horregaitik ezkututzen da gaia. Estatuak, frankismo garaian aktiboki, eta orain pasiboki, oztopoak ipinita, isilarazi gura izan duen mugimendu oso bat dago hor. Biktimei zailtasunak ipintzen zaizkie egiaz, erreparazioaz, memoriaz eta justizia eskatzeaz berba egiterako orduan. Kolektibo itzela da, handia, baina ematen du ez dela existitzen.

#### Aspaldikoa dirudien gaia da.

Bai. Esaten da Francok dena lotuta eta ondo lotuta utzi zuela. Eta horrela izan zela iruditzen zait. Franco hil ostean, ez zen korapilo horiek askatzeko modurik egon, ezta gai honetan ere. Albo batera geratu dira kolektibo oso bat, biktima eta borrokalari handiak direnak; nor diren galdetzen duten

**Haurren lapurreta  
salatzeak mindu egiten  
du, denbora luzean  
egindako krimena  
delako, baita demokrazia  
garaian ere**



'Ixo' instalazioa.

eta ikertzen dabilzan emakume eta gizon talde bat dira, urte luze borrokan dabilzanak, eta bidean oztopoak baino topatzen ez dituztenak: Elizak bere garaian itxi eta gaur egun zabaltzeko asmorik ez dituen artxibategiak, erregistro zibilean zeuden paperak eta erre edo urteotako uholdeetan galdu direnak... eta, azkenik, Botere Judiziala bera hesi bat da.

#### Artista izateaz gainera, aktibista zarela diozu. Zer izan zen lehenengo, sorkuntza ala aktibismoa?

Nire kasuan, eskutik doaz biak. Zorionekoa sentitzen naiz artista izanda, salatze erreminta oso baliagarria iruditzen zaidalako. Are gehiago, uste dut arteak beharrezkoa duela osagai hori, azken finean, jende askorengana heltzen delako artearen bitartez. Hain salaketa argia egin nuen lehenengo aldia 2002an izan zela esango nuke, Prestige ontzia ondaratu zen garaian. Jada existitzen ez den arte galeria batera joan nintzen hemeretzi barikutan, Bilboko La Taller galeriara; espazio ederra zen eta patio berezi bat zuen. Gorbatak batu –gerora nire artearen ikur bihurtu dira–, eta txapapotea irudikatzen zuen pinturatan sartzen nituen, gero eskegitzeko; hemeretzi barikutan egin nuen hori, hor hasi nintzen artea eta salaketa uztartzen. Aurretik ere sortzen nuen artea, baina lanak barrura begirakoak ziren batez ere, eta naturako elementuekin lan egiten nuen, aireagaz, lurragaz

eta uragaz, adibidez. Gai horiekin erosoago nengoan, beharbada, baina salatze behar hori nuela igartzen nuen. Instalazio horri *Esplendorosas* deitu nion, izan ere, garai hartan Espainiako Justizia ministroa zen Federico Trillok esan zuen Galiziako hondartzak "garbi eta distiratsu - *esplendorosas*, gaztelaniaz - zeudela" Prestigeren hondoraketaren ondoren, "ez zela hainbesterako izan"; bien bitartean, hondartzak hegazti hilez beteta zeuden, herritarrak buzo zuriekin lanean...

#### Zelako harrera izaten ari da Durango-ko erakusketa?

Durango Arte eta Historia museo magia duen gune bat dela iruditzen zait, eta, gainera, ikusgarria den gune bat ere bada. Lehen esandakoagaz alderatuta, erakusketa osoagoa da hau, borobilagoa; oraingo honetan biolentzia mota desberdinak irudikatzen dituzten lanak daude, eta zentzua hartzen du horrela. Erakusketa zirkularra da. Lehenengo pieza ere zirkularra da, espazioaren banaketa irudikatzen gura du guztiz itxia ez den zirkulu horrek; barrukoa emakumeentzako da, eta kanpokoa, ostera, gizonezkoentzako. Itxita ez dagoenez, irten zaitezke bertatik, baina ez da erraza. Hemen, adibidez, Afganistanen baino errazagoa da, baina horrek ez du esan gura oztoporik ez dagoenik alde publiko horretara irteteko.

#### Martxoaren 9an berbaldea emango duzu.

Abiapuntua Martxoaren 8a da, Emakumearen Nazioarteko Eguna. Hortik abiatuta, desberdintasunaren ondorio diren biolentzietan buruz arituko naiz. Berbaldiaren muina, baina, ume lapurtuen gaia izango da. Nire alderik aktibistena erakutsiko dut hor, izan ere, uste dut gaiari buruz ezer gutxi ezagutzen dela, eta dakiguna ez dela guztiz zehatza. 2012an biktima bat nire bizitzan gurutzatu aurretik, uste nuen Francoren garaiko lau biktimaren kontua zela. Baina ez. Frankismoan hasitako hori demokrazian ere errepikatu zen. Bilbon bertan, 90eko eta 93ko kasuak daude; jende horrek 30 eta 33 urte ditu orain. Ez da hilik dagoen jendea, bizirik dago, eta oraindino informazio bila dabilen jendea da. Justizia Ministerioaren arabera, 2011-2019 bitartean 2.000 ikerketa diligentsia inguru zabaldu ziren; horietatik laurden bat judizializatu zen, 500 bat. Gaur egun, judizializatu zirenak ere ez daude zabalik. Ume lapurtuen estatu legearen proiektua da geratzen den itxaropen bakarra; gaur egun, linbo egoera batean dago, eta itxaron baino ezin da egin, eta egoera libratu eta ea berriro ere martxan ipintzen den.

**M8**

EMAKUMEEN NAZIOATEKO EGUNA

**MARTXOAK 4, ZAPATUA:**

11:00-14:00 Emakume sortzaile eta ekoizleen azoka.  
13:00 Triki-poteoa.  
14:30 Bazkaria.  
16:30 Mahai jokoak eta karaokea.  
18:00 Taldeko argazkia.  
18:30 Musika girotua.

- HARRI KOSKOR - AMALUR PRODUKTUAK -  
- ARTIZAR - MARIMATRAKA9 - MALUKE MUNDUA -  
- DZEMENTO - KULUXKA - DARAMA JOYAS -  
- BITXIK&KOOL - IMPOSSIBLE BLACK - GABREK -  
- A.G.T.Z. - MAIMAI SORKUNTZAK - CHICK&TXIK -  
- KUKUPRAKA - KENIKA JEWELS - IRAMA\_NINEU -  
- OKELERRE - LA GALGA MENTA - BELAZE ZAPOREAK -  
- GARAI GARAGARDO ETA KONTSERBAK -

**MARTXOAK 8, ASTEAZKENA:**

18:30 Pankarta prestaketa udaletxean.  
19:15 Elkarretaratzea plazan.

BAYARNO USALA  
eta HERRITARRAK



**Amaia Astobiza  
Uriarte**

Itzultzailea eta ekintzaile  
feminista

ZORNOTZA | 1974

## “Ez dugu zertan denagaz ados egon; azken finean, liburuak ahotsa ematen die prostitutei, eta guri hortik ikastea dagokigu”

Amaia Astobizak 'Putza Zikinak' euskaratu du (Katakarak, 2022); prostituzioaren gaia bazterretik erdigunera ekarri eta eztabaidarako materiala edukitzeko helburua du

### ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO

**Amaia Astobiza itzultzaile zornotzarrak 'Putza zikinak. Sexu langileen eskubideen aldeko borroka' ('The fight for sex workers' rights') liburu euskaratu du; Katakarak argialetxeak argitaratu du. Juno Mac eta Molly Smith sexu langileek idatzi dute liburu, lau eskutara, eta sexu langileen eskubideak aldarrikatzearen beharra ipintzen dute erdigunean.**

**Gutxi agertzen den gaia da prostituzioarena eta, agertzen denetan, erreparoz begiratzen diogu.**

Feminismoak albo batera eduki duen gaia da prostituzioarena, eta muturreko iritziak sortzen dituena gainera. Katakarak argialetxearen bitartez jaso nuen euskaratzeko enkargua, eurek ingelesez irakurri eta gero. Prostituzioaren gaia Euskal Herrira ekarri eta eztabaidarako materiala euskaraz edukitzeko lagungarria izango

zela uste zuten. Debate hori orain dago feminismoan, eta Espainiako prostituzioaren legeaz ere lotuta dagoela esango nuke. Eta, normala den moduan, eztaibada guztietan ikuspuntu desberdinak behar dira. Horregaitik ipini gura zuen Katakarak baliabide hau herritarren eskura. Zelan eragiten die legediak sexu langileei? Eta eguneroko beharizanetan? Liburu hau ez da 'gu prostitutak gara eta hau da gure bizitza'; hona norbait morboagaitik badator, ez du hori topatuko. Lege eredu desberdinak aztertzen dituzte, eta lege horiek langileen behar materialetan duten eragina.

**Mac eta Smith protagonistek diote ikusi eta ikasi egin dutela borrokan.**

Juno Mac eta Molly Smith 2010ean hasi ziren sexu lanean, eta 2013an ezagutu zuten elkar, sexu langileen eskubideen aldeko borrokan; orduan, elkarregaz militatzen dute. Hasieran, prostituta liberal lez defini-

tzen zuten euren burua; baina gaur egun prostituta komuniztatzen dute euren burua. Sexu langileen eskubideen aldeko borroka beste erre-

**“Juno Macek eta Molly Smithek prostituta liberaltzat zuten euren burua 2010ean, sexu lanean hasi zirenean; gaur egun komuniztatzen dute euren burua”**

litate batzuk ezagutzea ekarri die: drogomenpekotasuna, etxebizitza eskubidearen aldeko borroka... elkar ukitzen duten borroka dira, eta, ondorioz, baten baino gehiagotan engaiatzen dira.

**Zeintzuk dira liburuaren gakoak?**

Lehenengo ataletan, sexuari eta lanari buruz gogoeta egiten du.

MARTXOAK 8  
2023

## Emakumeen Nazioarteko Eguna

**Martxoak 3, ostirala**  
Mallabiko III. Kros Morea  
17:00etan eskolatik irten eta amaiera parkean.  
• Dantza: Nire gorputza da (Mallabiko eskola)  
• Luntxa  
Antolatzaileak: Udala eta Herri Ekimena

**Martxoak 11, larunbata**  
16:00 Emakumezkoen Gomazko Paleta Elite Txapelketa (finala) herriko frontoian  
Antolatzailea: Udala eta Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza

**Martxoak 12, igandea**  
Antzerkia  
'Miss Spein'  
• Tokia: Kontzejuzarra  
• Ordua: 12:30  
• Norentzat: Helduentzat  
Antolatzailea: Udala

**Martxoak 8, asteazkena**  
12:00 Kontzentrazioa udaletxe aurrean;  
MARTXOAK 8 EGUNERO DA eta Adierazpen Instituzionalaren irakurketa (Udala)

Mallabiko Udala

Sexua zer den, lana zer den... kontzeptu potolo bi horiek zehazten dituzte, euren ikuspegitik. Hausnarketa hori egitera bultzatzen zaitu irakurketak, hau da, marko teoriko oso bat lurrera dakar. Irakurri ahala, gaia zein konplexua den konturatzen zara, baita zenbat faktorek eragiten duten ere.

Gero, migrazioak eta mugen arteko polizia-indarkeriak emakumeengan duten eragina azaltzen dute, eta azkenik, liburuaren zati handi batean prostituzioaren inguruko lege-eredu desberdinak

polizia-indarkeria basatiak emakumeengan eragiten dituzten ondorioak azaltzen dituzte. Kasu asko eta askotan, emakumeak behartuta daude euren herrialdeetatik alde egitera, bai euren bizi-raupenerako, bai atzean utzitako familia aurrera ateratzeko. Baina, atzerritartasun-legea dela eta, ezin dute legalki irten, eta, beraz, aukera handia dute esplotatzailen eta poliziaren eskuetan amaitzeko.

Askotan esaten da prostituzioaren ondorioz gogortzen direla migrazio-legeak, eta prostituzioaren ondorioz sortzen dela pertsonen trafikoa; egileen ustez, alderantziz da: migrazio-legeak gogor eragiten die emakumei, eta, horren ondorioz, askotan mafiatar jo behar izaten dute muga zeharkatzeko, eta gero gurpil horretan harrapatuta geratzen dira. Eta, bestalde, beldur izugarria diote helmugako herrialdeko poliziari, behin eta berriro mehatxatzen dituztelako deportazioagaz.

**Lehen esan duzu lege eredu bakoitzari atal bat eskaintzen diotela egileek.**

Alde batetik, penalizazio partziala deritzona dago, hau da, Erresuma Batuan dagoena: legezkoa da sexua erosi eta saltzea, baina ia gainerako guztia legez kanpokoa da; ezin dira sexu zerbitzuak eskaini edo bilatu, edota lagunekin lan egin edo sexu

lana antolatu. Lege horrek ez die heltzen emakumeak prostituziora bultzatzen dituzten benetako arazoak edo behar materialei: dirua, jana, droga, ingurukoak zaintzeko denbora...

Bestalde, AEBtan edo Hegoafrikan, besteak beste, dagoen erabateko penalizazioa aztertzen dute; espetxe-nazioa deitzen zaio eredu honi. Bertan, sexu lanean parte hartzen duen oro zigortzen da: sexu langilea, bezeroa eta bitartekoak (managerrak, gidariak eta etxejabeak). Ugandan, Errusian eta Iranen ere erabiltzen da eredu hau. Horrez gainera, Eredu Nordikoa lez ezagutzen dena ere azaltzen dute. Sexua erostea eta bitartekoak ere kriminalizatzen eta zigortzen dira, eta sexua saltzen dutenak argiro deskriminalizatzen dira; Suediaren, Norvegiaren, Kanadaren eta Irlandaren kasua da hori.

Alemanien eta Herbehereen kasuan, ostera, prostituzioa jarduera legala da. Hala ere, sexu industria gogor arautua dago eta zigortu egiten ditu baldintza burokratiko batzuk betetzen ez dituzten langileak -edo bete ezin dituztenak-. Baldintza horien artean, besteak beste, osasun azterketak, leku zehatz batzuetan lan egitea, edo prostituta lez publikoki erregistratzea daude.

Berariazko lau lege-eredu horiez gainera, bada beste aukera bat: prostituzioa erabat despenalizatzea eta sexu-industria lan-zuzenbidearen bitartez arautzea, gainerako lanbideekin egiten den legez. Eredu hori Zeelanda Berrian ezarri zuten orain hogeit bat urte, eta egileen esanetan horixe da une honetan eredurik egokiena. Hala ere, akatsak ere baditu; besteak beste, lege horrek ez die eragiten paperik bako etorkinei, eta, beraz, emakume horiek ilegalki eta eze-lango babesik barik aritu behar izaten dute prostituzioan.

**Mugimendu feministari ere kritikaren bat edo beste egiten diote.**

Bai, hala da; eskaera zehatzak dira, konplizitatearen barruan kokatu beharrekoak. Batez ere, eskatzen diote tarteka gogoeta teorikoak alde batera utzi eta prostituten beharretara hurbiltzeko, behar materialetara: jatekoa behar dute, edota txute bat, eta ez dute denborarik eztabaiarako, eta horrek feminismotik urruntzen ditu. Eta adibide mordoa ipintzen dute liburuan zehar. Horrek polita eta gogorra egiten du liburua, aldi berean.

**Nori gomendatuko zenioke liburu hau?**

Taldeka gogoeta feminista bat egiteko baliagarria da liburua,

baina norberarentzat ere baliagarria da. Ez duzu zertan ados egon denagaz, edo kontraesanak sortu ditzakezu, baina, azken finean, liburuak prostitutei ahotza ematen die eta guri hortik ikastea dagokigu.

**Ez da feminismoaren alorrean itzultzen duzun lehenengo liburu. Eroso zaude hor?**

Silvia Federicigaz hasi nintzen, eta lau liburu euskaratu dizkiot. Egia esan, gustura nago, asko ikasten dudalako. Aurretik neuzkan intuizio batzuk berretsi, eta beste batzuei izena ipini diet; maila indibidualeko kontu lez nituen batzuk ere kolektiboak direla ikusten lagundu dit. Horretan asko lagundu dit Federici itzultzeak, eta ikasitako horrek baliabide sendoak eman dizkit beste emakume batzuen errealtateak ulertzeko, eta Zornotzako talde feministan aritzeko. Hau itzultzean ere asko ikasi dut. Beste egile batzuk dira eta beste ikuspuntu bat dute. Federicik berak liburuari buruzko iruzkin bat egin zuen, eta bere azkeneko liburuan testu horretarako erreferentzia batzuk erabili zituen. Beraren ustez, justizia sozialaren aldeko edozein mugimendu bere egin behar du sexu langileen aldeko borroka ere.

**Justizia sozialaren aldeko edozein mugimenduk bere egin behar du sexu langileen eskubideen aldeko borroka**

azaltzen dituzte, eta horietariko bakoitzak sexu langileengan dituen ondorioak. Izan ere, adibidez, bezeroa zenbat eta gehiago estutu, orduan eta ondorio gehiago ordainduko du emakumeak beti.

**Zelan eragiten diete mugek sexu langileei?**

Mugei buruzko atalean, atzerritartasun-legeak eta mugen arteko

# EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

AMOREBIETA-ETXANO · 2023

## Martxoak 1-31

ERAKUSKETA

ZELAIETA

**AZUKREAREN GARRATZA**

Iñaki Mendizabal

## Martxoaren 6tik

GAZTEENTZAKO EKINTZA

12:30 ZELAIETA (Emakumei zuzenduta)

**NI NEU ZINEGILE..., NIRE FILMAREN ZUZENDARI**

Gariza Produzioak

## Martxoak 8

GAZTE TXOKO

**EMAKUMEEN MEMORY**

KONTZENTRAZIOA ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA

## Martxoak 8

12:00 HERRIKO PLAZA

**UDALETXEAREN ALDETIK, ERAKUNDEEN ADIERAZPENAREN IRAKURKETA**

HERRIKO ERAGILE ZEIN TALDE FEMINISTEN EKINTZEI BATERATZE DEIALDIA ETA PARTEHARTZERA GONBIDAPENA

## Martxoak 10

TEATRO

20:00 ZORNOTZA ARETOA (Gazteleiaz)  
**FEMINISSIMAS** · Ste. Xeito

XXV. ZORNOTZAKO EMAKUME NEKAZARI ETA ARTISAUEN AZOKA

- ZUBIONDO PARKEAN -

## Martxoak 11

12:30 AZOKA EREMUA

**II. MARIKELARRE SARIEN BANAKETA**

Aurten, 1940-1975 artean profesionalki aritutako emakume zornotzarrak omenduz

## Martxoak 11

ERAKUSKETA

AZOKA EREMUA

**EMAKUME BASERRITARRAK GAITTUN**

## Martxoak 11

10:00-15:00 AZOKA EREMUA

Larunbat goizez

**TRIKI PIU** Trikitixa taldeak girotuta

## Martxoak 18

IPUIN KONTALARIA

12:00 UDAL LIBURUTEGIA (Haurrentzako)  
**ZU ETA NI BERDIN**  
Lupe Lekuona

## Apirilak 11 - 25

ERAKUSKETA

ZELAIETA

**GIZONAK BERDINTASUNEAN ETA MASKULINITATE BERRIAK. JENDARTE BERRI BATEN ALDEKO IRUDI BERRIAK**

Piper txuriak taldea

## Apirilak 12 - 30

ERAKUSKETA

ZELAIETA, ERAKUSKETA GELA

**¿TE HAS SENTIDO ALGUNA VEZ UN TROZO DE CARNE?**

María Alarcon eta Alexia Randez sortzailleak

# Manifestazioak, hitzaldiak, erakusketak, lehiaketak eta gehiago egingo dituzte Durangaldean Martxoaren 8aren harira

Emakumeen Nazioarteko Egunean elkarretaratzeak eta manifestazioak egingo dira eskualdeko herririk gehienetan

## DURANGALDEA • J.D.

Durangaldeko herrietan egitarau zabalak antolatu dituzte Emakumeen Nazioarteko Egunean harira. Durangon, 'Bizkarrak 2.0' ikuskizunagaz ekingo diote egitarauari, domeka honetan. Formatu bereziko ikuskizun bitxi honek umorezko bakarrizketak eta solasaldiak tartekatzen ditu. Martxoaren 8ko ekimen nagusia Durango-ko Mugimendu Feministak deituriko manifestazioa da. 19:00etan irtengo da, Andra Maritik.

Zornotzan, Martxoaren 8ko manifestazioa Txiri-Txiri tabernaren aurretik irtengo da, 18:30ean. Horrez gainera, hilaren 11n egingo den emakume nekazari eta artisauen azoka nabarmendu dute.

Abadiñon, 'Degenérate mucho' antzezlan musikatuak genero identitateen eta kontraesanen inguruko hausnarketa proposatuko du gaur arratsaldean bertan, Errota kultur etxean. Eta Martxoaren 8an manifestatzera deitu dute: Traña-Matienan, 19:00etan.

Elorrion, ikastetxeetako ikasleek ere hartuko dute protagonismoa Martxoaren 8an. Ikasleek egindako 200 lan erakutsiko dituzte plaza eta frontoi inguruan. Bestalde, 18:00etan, udalak eta Asanblada Feministak deituriko mobilizazioa egingo dute, plazan.

Berrizen, Martxoaren 8an herritik zehar egingo den martxa 19:00etan hasiko da, udaletxe partetik. Horrez gainera, datozen egunean Neomak taldearen kontzertua eta Uxue Alberdiren 'Jenis Joplin' liburuari buruzko tertulia literarioa nabarmendu dituzte.

Iurretan, Martxoaren 8an adierazpen instituzionala irakurriko dute, 18:00etan, eta ondoren manifestazioa egingo dute. Manifestazioa Askondon hasi eta amaituko da. Eguerdian, emakumeen bazkari herrikoia egingo da.

Zaldibarren, Martxoaren 8an elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan, udaletxe parean. Toki berean manifestazioa egingo dute, 19:00etan hasita. Horrez gainera,



Iaz Martxoaren 8an Durangon egindako manifestazioa.

zapatu honetan, 20:45ean, Nicara dantza taldeak ikuskizuna egingo du Olazar pilotalekuan.

Mallabian, Martxoaren 8an elkarretaratzea egingo dute eguerdian, eta gaur, 17:00etan, III. Kros Morea egingo dute. Eskolatik plazaraino joango dira.

Otxandion, domeka honetan, 18:30ean, *Ainarak* dokumentala emango dute, eskolako gimnasioan, eta ondoren Anne Etchegoyenek kontzertu txikia emango du. Bestalde, Martxoaren 8ko arratsaldean elkarretaratzea egingo dute, Kontseilupean.

Mañarian, Martxoaren 8an, 19:15ean egingo dute egunari dagokion elkarretaratzea. Horrez gainera, zapatu honetan emakume sortzaile eta ekoizleen azoka egingo dute. Ekimen berriak 22 postu batuko ditu plazan, 11:00etatik 14:00etara.

 **DURANGO**  
Garena eginez Vivir y convivir

 **Andragunea**

# MARTXOAK 8













# ITZALAK

Zein itzal dagokio kolorez dagoen beheko irudiari?



# ORIGAMI


Jarraitu pausoei etxea egiteko.



# SEKUENTZIARI JARRAITU

Puntu arrosatik hasita, jarraitu beheko sekuentziari eta irudia lortuko duzu.

11 ↑ 2 ← 7 ↗ 2 ↘ 2 ↑ 2 → 4 ↓ 3 ↘  
2 ← 11 ↓ 3 ← 5 ↑ 4 ← 5 ↓ 3 ←





## 'Las que limpian'

ANTZERKIA **BERRIZ ETA ELORRIO** :: Martxoak 3 eta 4

### Hoteletako zerbitzarien borroka oholza gainean

Hoteletako pisu zerbitzarien borroka antolatua bidezko lan eta gizarte eskubideak lortzeko. Horixe du berbagai A Panaderia konpainiak taularatuko duen *Las que limpian* obrak. Kartel bat dago logelako biraderatik zintzilik: 'Mesede, konpondu gela'. Hondartzatik bueltan, oheak eginda, eskuoihalak garbi eta bainua garbi-garbi daude. Turismo-sistema prekarizatzailea bere gain

hartzen dutenak dira garbitzen dutenak, ikusezinak.

Posible al da lan horren balioa handitzea eta generotik banatzea? Badago turismo iraunkorrik? Nork garbitzen du garbitzailearen etxea? Garbitzaileez gainera, emakumez eta egunero ibiltzen garen zoru bustiaz ari da *Las que limpian*. Elorriko Arriolan, gaur, 20:00etan. Bihar, Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan

### Martxoaren 3an

#### ABADIÑO musika

**La Modern klown ikuskizuna**, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

#### BERRIZ antzerkia

**'Erreka Mari' txotxongilo ikuskizuna**, 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

#### DURANGO ekitaldia

**'Piztu argiak!' Plateruena kafe antzokiaren irekiera**, 20:00etan. Leire Vargasek aurkeztuta, eta, besteak beste, Anarik, Odei Barrosok, Peru Magdalenak eta Aitor Bizkarrak parte hartuko dute.

#### DURANGO ekitaldia

**Ourdaybiko lokal berriaren inaugurazioa**, Landako Kirolgunean. Ourdaybi 2.0 aurkezpena, 18:00etan. Ourdaybi Mendifilm, 18:30ean. Sorpresa, 20:00etan. Luntxa, 20:30ean.

### Martxoaren 3tik 5era bitartean

#### DURANGO azoka

**Dendak Bai Fest**, Landako Gunean. Gaur 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik; zapatuan 10:00etatik 21:00etara, eta domekan 11:00etatik 14:00etara.

### Martxoaren 4an

#### DURANGALDEA ekitaldia

**'Durango ta litorretatik bagabiz'**. Irratsaioa zuzenean, 12:00etan lurretako Abadetxean. **Bertso bazkaria**, 15:00etan, lurretako Montosten: Joanes Illarregi eta Irantzu Idoate. **Karropoteoa Durangoruntz**, 18:00etan. **TOC eta Pary&Tiza**, 21:00etan Durangoko Intxaurren. **After Party**, 02:00etan lurretako Abadetxean.

#### IURRETA musika

**Hibai Etxebarria**, 18:00etan, Goiuria auzoan. Ondoren, luntxume bat eskainiko dute.

#### MALLABIA kirola

**Mallabiko Pisu Libreko Asto Proben 15. Saria**, 18:00etan, probalekuan.

#### ZORNOTZA antzerkia

**'Arrainak bihotzean' (Mar Mar Teatro konpainia)**, 17:30ean, Zornotza Aretoan.

### Martxoaren 5ean

#### DURANGO antzerkia

**'Bizarrak 2.0' (Getari Etxegarai, Aitziber Garmendia, Ane Gabarain eta Itziar Atienza)**, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

#### DURANGO dantzaldia

**Nagusientzako dantzaldia**, 18:30etik 20:30era, Landako Kiroldegian.

#### MALLABIA kirola

**Mallabiko Pisu Libreko Asto Proben 15. Saria**, 18:00etan, probalekuan.

#### ZORNOTZA antzerkia

**'Una vida, un calcetín, un sueño y una máquina de escribir' (Constantin Cotimanis, Daniel Bucur)**, 18:30ean, Zornotza Aretoan.

### Martxoaren 7an

#### ELORRIO bertsoak

**'Palestinako emakume errefuxiatuak 75 urte oroimenean' bertso saioa: Iruri Altzerreka, Onintza Enbeita eta Nerea Ibarzabal bertsolariak**, 18:30ean, Arriola Antzokian.

### Martxoak 9an

#### ZORNOTZA musika

**The Ciborgs**, 20:00etan, Zelaieta Zentroko kontzertu gelan.

### Martxoaren 9a bitartean

#### IURRETA udalekuak

**Kimuak aisialdi taldearen udalekuetan izena emateko** epea zabaldu dute. Kontakturako emaila: kimuak.a.e@gmail.com

### Martxoaren 10ean

#### DURANGO berbaldia

**'Durangaldean ere baziren leize hartzak' (Hizlaria: Asier Gómez Olivencia paleontologoa (EHU))**, 18:30ean, Bizente Migel liburutegian.

#### IURRETA antzerkia

**'Eneko eta Ixabel: bertako elikagaien bila' (Edabe konpainia)**, 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

#### ZORNOTZA antzerkia

**'Feminissimas' (Ste Xeito konpainia)**, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

### Martxoaren 19a bitartean

#### DURANGO erakusketa

**'Egiteko duguna' erakusketa (Cristina Gutiérrez Meurs)**, Arte eta Historia Musean.

## Zinema

### :: Abadiño

ERROTA KULTUR ETXEAN

• **As Bestas**

barikua 4: 19:00

• **Hopper, oilaskoerbia**

domeka 5: 17:00

### :: Berriz

KULTUR ETXEAN

• **Irati**

barikua 3: 19:30

domeka 5: 19:00

### :: Durango

ZUGAZA ZINEMA

• **Irati**

barikua 3: 18:30 / 21:00

zapatua 4: 19:00 / 21:30

domeka 5: 19:30

astelehena 6: 18:00 / 20:15

martitzena 7: 18:00 / 20:15

• **Irati (euskaraz)**

barikua 3: 18:30 / 21:00

zapatua 4: 19:00 / 21:30

domeka 5: 19:30

astelehena 6: 18:00 / 20:15

martitzena 7: 18:00 / 20:15

• **Creed III**

barikua 3: 18:30 / 21:00

zapatua 4: 16:30 / 19:00 / 21:30

domeka 5: 17:30 / 20:00

astelehena 6: 18:00 / 20:15

martitzena 7: 18:00 / 20:15

eguzatena 8: 19:00

• **Momiak**

zapatua 4: 16:30

domeka 5: 17:00

• **Momias**

zapatua 4: 16:30

domeka 5: 17:30

• **Simone. La mujer del siglo**

eguzatena 8: 19:00

• **La flauta mágica**

eguzatena 8: 19:00

### :: Elorrio

ARRIOLA ANTZOKIA

• **Irati**

zapatua 4: 20:00

domeka 5: 20:00

astelehena 6: 20:00

• **Mi asombroso Mauricio**

domeka 5: 17:00

### :: Zornotza

ZORNOTZA ARETOA

• **Joyland**

astelehena 6: 20:15

• **Noizko Basoa**


martitzena 7: 20:15

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



# Anbotokideen txokoa

**anboto**  
kide




## MARTXOKO ZOZKETAK


BEÑAT ACHIARY JOSEBA IRAZOKI JULEN ACHIARY  
**BAS(H)OAN**



**Bah(h)oa II** ikuskizunerako sarrera bikoitza. Martxoaren 15ean, Bilboko Itsas Museoan. Loraldia festibalaren egitarauaren barruan.



**Suirrealismoa** dantza ikuskizunerako sarrera bikoitza. Martxoaren 16an, Arriaga antzokian. Loraldia festibalaren egitarauaren barruan.



**Xiberu tabernan** bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

## IRABAZLEAK

**Uxarten jatordua:** Ismene Agirre Maguregi  
**Irati filma Arriolan:** Itxasne Arabiourrutia Las Peñas  
**Arrainak bihotzean:** Izaskun Izurieta  
**Bizarrak 2.0:** Marian Sanchez de la Flor

### Okm:

*batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



# Okm:

*batzen gaituen distantzia*

abantaila guztiak hemen >



**Egin zaitez anbotokide!**

**30€ urtean!**

**anboto**  
kide



**Mainer Larrañaga Leunda**

Platerueneko arduraduna  
BERGARA | 1973

**mn**  
Mondragon  
Unibertsitatea

**Gure ikasleen ahotan**

**“Hezkuntza berritzailearen alde egin behar da”**



**ANE GABIKAGOGEASKOA PAGONABARRAGA**  
(Durango, 21 urte)

Lehen Hezkuntza graduko  
4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

**Definitu apur bat zeure burua, baduzu hobby edo zaletasunik?**

Neska alaia, arduratsua eta langilea naiz. Nire zaletasunei buruz, alde batetik, bidaiatzea asko gustatzen zait eta, bestetik, maite ditudanekin egotea.

**Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Lehen Hezkuntza gradua hautatu nuen haurrekin lan egitea gustatzen zaidalako; izan ere, asko miresten ditut umeak, une honetan gure oraina direlako baina gure etorkizuna ere bai. Beraz, irakasleen lanaren garrantziaz kontzientziatzea ezinbestekoa da, ikastetxeetan etorkizuneko herritarrak hezten baitira. Bestalde, nire ikasketak Mondragon Unibertsitatean egin ditut metodologiagatik. Alegia, talde lanak eta norbere garapena lantzen dira eta, nire ustez, oinarritzko gaitasunak direlako.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Nire esperientzia oso aberasgarria izan da. Lau urte hauetan nire profil profesionala zein pertsonala garatu ditudalako. Gainera, nire printzipio pedagogikoak bermatzeaz gain, etorkizunean nolako irakasle ikertzailea izan nahi dudana jakin badakit.

**Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Arestian nabarmendu bezala, ikasteko metodologia aberasgarria, lagungarria eta motibagarria da. Nire kasuan, behintzat, egindako lan, proiektu eta modulu guztietan gogo izugarria jarri dudalako. Hari beretik, lantzen diren gaiak interesgarriak eta hezitzaile izateko ezinbestekoak dira.

**Zer da gehien gustatzen zaizuna unibertsitatetik?**

Gehien gustatzen zaidana eskaintzen den hurbiltasuna da. Nire kasuan, izandako tutore guztiak une oro egon baitira laguntzeko prest, eta bidelagunak izan dira prozesu guztian zehar.

**Zeintzuk dira zure asmoak etorkizunera begira?**

Etorkizun hurbil batean irakasle izatea gustatuko litzaidake, hori baita nire ametsetako bat. Halaber, irakasle izateko bokazioa dut eta ikasle guztien arrakasta bermatzeko hezkuntza berritzailearen alde egin behar dela uste dut.

## “Plateruenean jendeak espazio anitz bat topatzea gustatuko litzaidake”

Plateruena kultur aterpeak 'Piztu argiak, poztu bihotzak eta puztu aterpe hau' goiburuzagaz ekingo dio ibilbide berriari

**PLATERUENA • JONE GUENETXEA**

**Plateruena gaur ekingo dio ibilbide berriari. Hile batzuetan zabalik egon den arren, gaur egingo dute irekiera ofiziala, 20:00etan. Anari, Peru Magdalena, Aitor Bizkarra eta Odei Barroso igoko dira taula gainera, besteak beste. Izena mantenduta, baina abizen berriagaz aurkeztu dute proiektua Durangoko hainbat kultur eragilegatz, asteon: Plateruena kultur aterpea. Mainer Larrañaga izango da proiektuaren gidaria.**

**Zer adierazi gura izan duzue kultur aterpea izenagaz?**

Plateruena gaur ekingo dio ibilbide berriari. Hile batzuetan zabalik egon den arren, gaur egingo dute irekiera ofiziala, 20:00etan. Anari, Peru Magdalena, Aitor Bizkarra eta Odei Barroso igoko dira taula gainera, besteak beste. Izena mantenduta, baina abizen berriagaz aurkeztu dute proiektua Durangoko hainbat kultur eragilegatz, asteon: Plateruena kultur aterpea. Mainer Larrañaga izango da proiektuaren gidaria.

**Bost ildo nagusi aipatu dituzu. Zelan landuko dituzue?**

Durangarrentzako, Durango edo Durangaldeko artistentzako topagune bat eta esparru honetan interesa duen jendea gerturatzeko leku bat izatea gustatuko litzaidake. Horretarako, estrategia batzuk martxan ipiniko dira; sortzaileen arteko topaketa informalak antolatzea, esate baterako. Konturatu gara sormenerako lurralde aberatsa dela hau, baina sarritan eragileek ez daukatela elkarren berri. Modu informalak aukera bat ematen du hartu-eman hori lantzeko. Harrobiaren ideari dagokionez, baliabideak eskaini gura ditugu txikitatik hasita arteagaz eta sormenagaz esperimintatzeko, ezagutzeko eta ikusteko. Helburua da etorkizuneko sortzaileekin lanketa egitea. Esperimintazio gunea esaten dugunean, sormenagaz oso lotuta dago. Tailerrekin, esate baterako, arlo hori landu daiteke. Gertuko sormenerako estrategiak detektatuz aukera ezberdin batzuetatik jotzea ipini dugu helburu, eta horiek hemendik eskaintzen direnak

izatea. Bestalde, erakusleio edo oholtza honek sasoi batean izan zuen erreferentzialtasuna berreskuratzeko ahalegina egingo dugu, oreka bat gordeta lan profesionalen edo kontrataturikoen artean, eta baita lehenengo plaza horren bila dabilzan etorkizuneko profesionalak ere lekua izateko.

#### Zelan funtzionatuko du proiektu berriak?

Funtzionamendu aldetik, kultur mahaia daukagu, eta nire iritziz oso proposamen interesgarria da. Denon artean erabakiko dugu zein funtzionamendu izango dugun. Espero dut ate itxiekin orain arte baino lan gehiago egingo dela. Sortzeko plaza bat izango dela esaten dugunean, beti esaten da pilotari batek frontoi bat behar duen moduan entrenatzeko, edo futbolari batek futbol zelai bat, sortzaileek oholtza bat behar dutela. Ordubeteko kultur saio bat ikustera joaten garenean, ez dugu imajinatu ere egiten aurretik zenbat lan ordu behar izan diren ateak itxita bakardade edo kolektibotasun horretan egiten direnak.

#### Ikusleak zer aurkituko du Plateruenean?

Plateruenean jendeak espazio anitz bat topatzea gustatuko litzaidake. Kalitatezko gauzak dauzkanak, interes kulturalagaitik programatzea merezi dutenak eta baita herrian sortzen diren beste hainbat inizatiba ere. Orain arte, Dantzaro hemen egin da, bandak ere hemen egin izan ditu kontzertuak... jende horrek ere bere lekua hemen topatzea gura nuke.

#### Talde handiak etorri izan dira Plateruenera. Kontzertu horiek lekua izaten jarraituko dute?

Bai, etorri ahal izango dira eta, gainera, lantzen gabiltzan bide bat da. **Zer gertatuko da tabernagaz? Oraingoz itxita dago.** Oraingoz ez da taberna zabalduko, baina zabalduko da. Argi daukaguna da kultur gintza dela etxe honetako ildo nagusia. Beraz, aterako den taberna eredu bigarren mailakoa izango da, eta kultur gintzari kalterik egingo ez diona. Seguruenik taberna egongo da ekitaldi batzuetan, baina beste batzuetan akaso ez da taberna zerbitzurik egongo.

#### Arlo pertsonalean, zelan hartu duzu ardura hau?

Ardura handiagaz bizi dut. Pozik, erronka profesional eta pertsonal handia delako. Bestalde, eskertuta nago nigan ipini den konfiantzagaitik. Pentsatu gura dut arazoak baino erronkak izango ditugula aurrean. Oraingoz neu naiz aurpegi bisi-bleena, baina kultur mahaia badauzka hor ondo definitutako zereginak. Talde motore bat ere egongo da, udaletxeko teknikariek eta kultur mahaiko ordezkari bigaz. Kultur mahaian borondatez dabilen jendea dagoela da plano bi haien arrazoi

nagusia, eta gauzak erraztu egin behar zaizkiela.


#### Zein desberdintasun dago foro bien artean?

Kultur mahaia erabakiko du arlo estrategikoak zelan landu eta proposatu. Baina, adibidez, eredu bat atera behar bada, zein baldintzatan utzi behar zaion espazio hau hirugarren bati. Kultur mahaia hutsetik hasi behar, geu hasiko ginateke talde motoretik hori guzti hori lantzen.

**Durangoko Udaleko kultur erakundeetan emakumeak zaudete ardura karguetan: Garazi Arrizabalaga Arte eta Historia Museoa, Arantza Arrazola San Agustin kultur gunean eta Esti**

#### Albizu Bixenta Mogelen.

Bai, eta horiei Laura Vallejo kultura teknikaria ere gehitu behar zaie. Hori oso positiboa da niretzat. Kasualitatez edo kausalitatez sorturiko talde bat gara. Emakumeok beste perspektiba batetik eraikitzen ditugu gauzak, edo beste perspektiba batzuk kontuan izanda. Emakumeoi beste zirikitu batzuk zabaltzen ahalegintzen gara. Badaukagu sentsibilitate berezi bat. Eta, batez ere, emakumeoi lan egiten erakusten digute, eta lanerako dedikazioan ere igartzen da. Ekipo langile bat gara. Eurak kultur mahaian egongo dira eta gure artean komunikazio naturala dugu.



Platerueneko irudi berria ipini dute eraikinaren aurreko aldean.

## Gai librean

#### Bizitzeko modu bat

Lanbrotuta daukat oroimena. Esango nuke autobusa hartzera Zaldibartik Durangora joan ginela, eta bertatik abiatu eskualdeko beste hainbat lagunekin batera. Urte batzuk atzera egin behar dut, pausa labur bat egin eta bai, nabaria da aldea. Orduan gazte ginen, ez dago horren zalantzarik. Orain ingurura begira argi ikusten da, batzuk ilea falta, beste batzuk urdinduta edo bidean, tintez estalita dutenak ere. Memoria estaltzen didan behe-lainoaz gaindi oroitzen dudana apurrarekin esango nuke autobusean eseri ginela norantz goazen jakin gabe, baina bueno, akaso bai, zalantzan naiz eta. Nora agian ez genuen jakingo, baina bai zertara. Hilabete luzeetan fruituak emandako zukgua dastatzera. Zerbait berpiztera, zerbaiten jaiotza ikustera.

Gaztez lepo zegoen Lizarrako frontoia. Orduko argazkia eskutan, gure lookak ere ezin ezkutatu urte batzuk



Ainhoa Zabarte Narbaiza Behargina

#### Elkartzeko eta eztabaidatzeko espazio berri bat sortu zen. Eta Lizarrako frontoi hartan jaio zen Ernai

#### Zenbat bizipen hunkigarri, zenbat proiektu eta borroka, erdipurdi irtendakoak eta borobilak ere bai

pasatu direla. Aurpegi ezagun asko elkartu ginen bertan, eta ondoren ezagunago egingo ziren aurpegi berriak ere. Tripan tximeletak eta irribarre urduriak presente, kanturako gogoa, txaloak eta intriga handia. Autobusean ere egin genuen porra bat edo beste "zein izango da izena?". Aspaldi itzalia zen gazte ezkertiar independentistak esnatu ziren Zaldibarren ere. Fruitu,

zuku eta pajitaz betetzen ziren karte-ekin hausnarketan urratsak aurrera eman genituen. Elkartzeko eta eztabaidatzeko espazio berri bat sortu zen. Eta Lizarrako frontoi hartan jaio zen Ernai. 2013ko martxoaren 2an. Duela hamar urte. Erraz esaten da, hamar urte. Zenbat bizipen hunkigarri, zenbat proiektu eta borroka, erdipurdi irtendakoak eta borobilak ere bai. Haserreren bat edo beste, lagunak egin eta zenbat ikasi dugun. Eskola izan da askorentzat. Bizitzeko modu bat.

Hamar urte beteta, ospatzeko aitzakia ezin hobea datorkigu eskualdean hilabete barru. Elorrixon zu ta ni. Zenbat topagune, zenbat lokatz, euri, martxa, aje, ligoteo eta txanda. Ezin bildu hitz hauetan bizitako guztia. Eta ez hain gazte bagara ere, Elorrion elkartzeko gara berriz. Zorionak, Ernai, eta segi lanean euskal gazteria eta Euskal Herria astintzen.

# “Master Kaiolan ikastea eta gozatzea ditut helburu; besteen kontra lehiatuz ikasten da”

June Urrutikoetxea Master Kaiola txapelketa jokatu duen Durangaldeko ordezkari bakarra izango da emakumeetan



June Urrutikoetxea Salazar

Pilotaria  
DURANGO | 2006

**PILOTA • JOSEBA DERTEANO**

**Zelan sortu zaizu txapelketan parte hartzeko aukera?**

Txaber nire entrenatzaileak [Txaber Zabala, Durangoko Pilota eskolako arduraduna] galdetu zidan ea txapelketan parte hartzeko prest egongo nintzen, eta baietz erantzun nion.

**Zure ibilbideko txapelketarik inportanteena da?**

Nire ustez, bai. Master Cup-en ere parte hartu dut urte bitan, baina azpiko mailetan.

**Zer helburu dituzu?**

Master Kaiolan ikastea eta gozatzea ditut helburu. Buruan ez dut irabaztea. Besteen kontra lehiatuz ikasten da eta norbera non dagoen ikusteko balio du.

**Lau eta erdia gustuko duzu?**

Bai, asko gustatzen zait. Binakakoa baino gehiago gozatzen dut lau eta erdian, baina binaka ere gustura aritzen naiz.

**Zelako pilotaria zara? Tantoari eusten dion horietariko ala erasokorra?**

Tantoak azkar amaitzea gustatzen zait. Batzuetan aitak esaten dit tantoa lar arin amaitzea gura dudala eta pazientzia gehiago izan behar dudala. Apurka ikasten nabil.

**Zure kanporaketa Dimako Txumulueta klubeko Malen Lamadriden kontra jokatu duzu. Zer dakizu berari buruz?**

Lehen, Otxandioko Ainhize Etxebarria pilotariagaz jokatzen nuen binaka. Ni baino urtebete gazteagoa da. Orain Diman entrenatzen da, Malenegaz batera, eta bere bitartez ezagutzen dut. Trinketean ere kointziditu izan dut Malenegaz.

**Zelako pilotaria da?**

Trinketean jokatzen ikusi dut gehienbat, eta asko ematen dio pilotari. Jotzailea da eta aurkari gogorra izango da.

**Zelan egin dakioke aurre?**

Bera mugiarazten ahaleginduko naiz, atzera-aurrera, aldamenetara... Kantxan deseroso ibili dadila. Eta pilota astintzen duenean tantoari eusten ahaleginduko naiz.

**Antolatzaileek buruhauste asko izan dute txapelketako hamabiak aurkitzeko. Zenbat zabilzate Durangon?**

Esku pilotan neu naiz bakarra. Umetxoak badaude, baina, bestela, neu bakarra.

**Eta binakakoak nogaz jokatzen dituzu?**

Bizkaiko binakako txapelketa Gernikako pilota klubeko Amaia Zarrabeitiagaz jokatzen nabil. Orain asko jokatzen dut beragaz.

**Zer egin daiteke emakumeak esku pilotara erakartzeko?**

Nire partiduak Durangon antolatzeke eskatzen diot Txaberri, hemengo neskatoket pilotari partiduak ikusi ditzaten horrela. Kirol honetan neskei ikusgaitasun gutxi ematen zaigula uste dut. Adibidez, Unai Laso eta horiek Durangora etorri zirenean jende mordo batu zen, baina oraintsu lehen mailako emakume pilotariak aritu dira San Fauston eta ez zen ia inor egon. Ikusgaitasun handiagoak jendea batzen lagunduko luke.

## Neska pilotarien eskasia: antolatzaileek 30 klubetara jo dute 12 pilotari batu ahal izateko

Kostatu egin zaie emakume pilotariak aurkitzea txapelketarako. Master Kaiolako antolatzaileen esanetan, gabezia horrek erakusten du "lan asko" dagoela egiteko oraindino

**PILOTA • J.D.**

Lau eta erdiko Master Kaiola txapelketaren 8. aldia martxoaren 10ean hasi eta maiatzaren 14an amaituko da. Barikuro, 20:30ean, eta domekero, 17:00etan, jokatuko dira partiduak, Amorebieta IV pilotalekuan.

Aurten, 12 neska eta 40 mutil arituko dira lehian. Nesketan dago txapelketako nobedade nagusia. Orain arte, pilotaririk onenak ekartzen ahalegindu izan dira, baina, aurten, eredia aldatu eta klubetara jo dute pilotari bila. Klubei eta eurentan dabilzan neska pilotari "garrantzia" ematea dute helburu, Lagun Onak elkarteke Ekhi Ziarrustak azaldu duenez. Ez da erraza izan pilotariak aur-

kitzea. "Lau federazioetako 30 bat klubetara joan gara hamabi pilotariak lortzeko", zehaztu du. Gabezia horrek erakusten du oraindino "lan asko" dagoela egiteko. Eredu izateko asmotan, Lagun Onak taldeko pilotari bik buruzburu jokatu dute martxoaren 10eko lehenengo jaialdian, nahiz eta ez dauden txapelketa barruan. Sare Aretxaga eta Irati Benito dira pilotari biak.

Neskek euren klubak ordezkatu dituzte eta, ondorioz, diru sariak nahiz dietak klubetara bideratuko dituzte. Klubek erabakiko dute diruagaz zer egin. "Nesken pilota babestu gura dugu, baina klubak ere bultzatu gura ditugu, arlo horretan indarra falta

dela uste dugulako. Horregaitik hartu dugu erabaki hau", azaldu du Ziarrustak.

Pilotarietarik bat Durangoko Pilota Eskolan dabil: June Urrutikoetxea. Beste bat Bartzelonakoa da: Leire Arribas. Gainerakoak honako hauek dira: Malen Lamadrid (Txumulueta), Olatz Beitia (Lea), Irene Azkona (Usansolo), Uxue Perez (Lezama), Alba Monge (Lagun Artea), Irati Arroyo (Zumarraga), Lide Lopez (Ataun), Edurne Carretero (Aloña Mendi), Kattin Madariaga (Bortziriak) eta Alejandra Bilyak (Ezkarai). Mutiletan hogeina pilotari arituko dira gazte eta 22 urtez azpiko mailetan. Faben Ituarte atxondarrak ezin izango du parte hartu, lesio



Martxoaren 10etik aurrera jokatuko dituzte partiduak, bariku eta domeka arratsaldeetan.

bategaitik. Aurreko aldi bietan lez, aurten ere K-saria banatuko dute. Sari honek Kepa Arroita-jaregi gogoratzea eta txapelketako pilotaririk ereduagarrienak

saritzea du helburu. Lehiakortasuna, errespetua, adorea eta halako balioak kontuan hartuko dituzte puntuak banatzerako orduan.

## Ortiz de Mendibil eta Aldazabal, Winter Series txapelketako lehenengo finalistak

Astelehenean, finalera sailkatzen ahaleginduko da Helena Barrenetxea durangarra



Maite Ortiz de Zarate eta Maialen Aldazabal asteleheneko neurketan. **ERAMAN JAI ALAI**

### ZESTA-PUNTA • JOSEBA DERTEANO

Emakumeen Winter Series txapelketako lehenengo jardunaldiak harrera ona izan zuen zaleen partetik. Antolatzaileek emandako datuen arabera, 500 lagunetik gora batu ziren astelehenean Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Eta kantxa barruko ikuskizuna harmailetako giroaren parekoa izan zen. Maite Ortiz de Mendibil andetxarrak (Gasteiz) eta Maialen Aldazabal berriatuarrek joko berdindu bi irabazita (15-12/15-13) lortu zuten finaleira sailkatzea, Ihart Arakistain

sopelarraren eta Frida Watkins zumaiarraren kontra. Bestalde, gizonetan, Xabi Barandikak joko biak irabazi zizkion Johan Sorozabali: 15-11, bietan.

### Astelehenean, Barrenetxea

Datorren astelehenean etxeko pilotariaren txanda izango da. Helena Barrenetxea durangarrak eta Eneritz Lizardi mutrikuarrak finalerako sailkatzea bilatuko dute Erika Mugartegi eta Arai Lejardi markina-xemeindarren kontra. Barrenetxeak berme handiko atzelaria

du Lizardirengan. Mutrikuarrak badaki hitzordu garrantzitsuak jokatzea zer den; besteak beste, munduko txapelketa irabazi zuen iaz, Biarritzen. Baina aurkariak ere ez dira edozein: 22 urtez azpiko Europako txapelkunak.

Bestalde, gizonetan, Aritz Erkiagak Imanol Lopezen aurka jokatuko du buruz buruko partiduan. Irabazleak Xabi Barandika du zain finalean. Asteleheneko jardunaldirako sarrerak [www.eramanjaialai.com](http://www.eramanjaialai.com) webgunearen bitartez eskuratu daitezke.

## Durango Kirol Taldeak Espainiako trail txapelketa irabazi du

Oihana Kortazarrek irabazi zuen mendi lasterketa, eta beste hainbat taldekidek ere lan bikaina egin zuten

### MENDI LASTERKETA • J.D.

Joan zen asteburuan, Espainiako Trail Txapelketa jokatu zen Zahara de la Sierran (Cadiz), eta Durango Kirol Taldeak (DKT) taldekako garaipena eskuratu zuen. DKTko Oihana Kortazar elgetarrak (4.12.07) irabazi zuen lasterketa, eta, beraz, Espainiako txapelketa. Bere taldekide Ainara Urrutia aretxabaletarrak podiuma zapaldu zuen, hirugarren tokian. Durangaldeko korrikalariak ere protagonista izan ziren DKTren lorpe-

nean, Garazi Sampedo —zazpigarren— eta Eneritz Alkorta atxondarrekin.

Oihana Kortazarrek aurreikuspenak bete zituen. Bera zen 39,4 kilometroko proba —2.380 metroko desnibel positibokoa— irabazteko faboritua. Júlia Font hasieran eta Ikram Rharsalla geroago, gauzak zailtzen ahalegindu zitzaizkion, baina elgetarra beste maila batean zegoen. Helmugan, Kortazarrek minutu bitik gorako aldea atera zion bigarren sailkatuari.



Ainara Urrutia, Eneritz Alkorta, Oihana Kortazar eta Garazi Sampedo.

## Jokaldia

### Kirol garbi baten alde

Azkenaldian gero eta notizia gehiago irakurtzen ditut dopinari buruz. Hainbat atleta, leku ezberdinetakoak, denboraldi batez lehiatzeko aukerarik gabe zigortuak izan direla, eta iraganen lortutako domina eta errekorrek kendu dizkietela. Egia da hau betidanik gertatzen dela kirolean, baina, agian orain mundu honetan sartuago egonda, gehiago erreparatzen diot. Horrelako notizia bat irakurtzen dudun bakoitzean pena apur bat sentitzen dut. Batez ere behin baino gehiagotan harrapatuak izan direnean.

Miresmena diozun atleta bat, zure erreferente bat izan daitekeen atleta bat tranpetan aritu dela ohartzean dezepzioa sortzen du. Eta batez ere, kirol munduan gabiltzanok badakigu



June Arbo Sarriguarte  
Korrikalaria

**Miresmena diozun atleta bat, zure erreferente izan daitekeena, tranpetan aritu dela ohartzean dezepzioa sortzen du**

**Pentsatzen jarri naiz ea honen aurrean ezartzen diren zigorrak nahikoak diren edo eragin nahikoa duten**

lorpen bakoitzaren atzean dagoen esfortzu, denbora, eta sufrimendu guztia. Uste dut argi dagoela ez dela justua errendimendua hobetzen du-

ten substantzia debekatuak hartzea, baina, batez ere errespetu falta bat iruditzen zait. Batetik, egunero maila gorenean egoteko esfortzua egiten dutenekiko, beraien denbora eta askotan dirua horretan inbertitzen duten kirolari guztiekiko. Bestetik, ikusle, kirolzale eta jarraitzaileekiko, kirolariak miresmenez ikusten dituzten guztiekiko. Eta, azkenik "kirolarekiko", eta kirol mundutik transmititu beharko lirateken baloreekiko.

Honekin guztiarekin lotuta, pentsatzen jarri naiz ea honen aurrean ezartzen diren zigorrak (hainbat hila-betez lehiatzeko aukerarik ez izatea) nahikoak diren, edo eragin nahikoa duten. Agian, dopatzearen ondorioak gogorragoak izango balira, ez litzateke horrenbeste kirolari hau egitera ausartuko.

# Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?


## Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

\* Izan zaitez berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak

**> anboto**



## Botikak

**BARIKUA, 3** · 09:00-09:00

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA,  
4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 4** · 09:00-09:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA,  
4 P8 - ABADIÑO

**DOMEKA, 5** · 09:00-09:00

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 6** · 09:00-09:00

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA,  
4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 7** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA,  
4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 8** 09:00-09:00

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA,  
4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 9** · 09:00-09:00

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA,  
4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

**GOZATU GOZOTEGIA**  
Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozaturgozotegia



## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 3° / 9° ☁

ASTELEHENA ↓ 3° / 13° ☁

EGUAZTENA ↓ 8° / 15° ☁

DOMEKA ↓ 0° / 14° ☁

MARTITZENA ↓ 7° / 13° ☁

EGUENA ↓ 7° / 19° ☁

**clínica dental hartz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTOLOGIA · KIRURGIA  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA  
ODONTOLOGIA PEDIATRIKOA - PADI · HORTZETAKO ESTETIKA  
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

# "Kalitatezko produktua da BioBizirena, denboran iraungo duena"

Lucía eta Mariaje ama-alabek BioBizi proiektua hasi zuten 2022ko ekainean. Oihalezko osagarriak egiten dituzte eta proiektua sendotzea dute erronka nagusia



**Lucía García Fernández**

BioBizi  
ERMUA | 1993

**Mariaje Fernández González**

BioBizi  
ERMUA | 1961

## ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

**Mototsekoak, zaku termikoak, giltzatak, poltsa berrerabilgarriak, ogi poltsak, poltsak, txupetea eta mugikorra eramateko zintak zein makillajea kentzeko toallatxoak.** Lucía eta Mariajek oihalezko hainbat osagarri egiten dute, BioBizi izenpean.

### Zelan sorturiko proiektua da BioBizi?

**Lucía:** Urteak dira amak zaku termikoak josten dituela; gari haziak eta izpiliku lore sikuak dituzte barruan. Horregaz hasi ginen, eta osagarri gehiago sortzen joan gara. **Mariaje:** Orain hamar bat urte hasi nintzen zaku termikoak josten.

Familiakoei eta lagunei oparitzeko hasieran, eta, gero, zenbait dendatan salgai ipintzen hasi nintzen. Dena dela, hobby modura hasi nintzen.

**Zaletasuna ofizio bihurtu duzue, beraz.**

**Lucía:** Bai. Gaur egun, BioBizi proiektua gure lanbide nagusi bihurtu da. Ez da hobby soil.

**Kontsumo arduratsua bultzatzea duzue helburu. Premisa horregaz lan egiten duzue, oihalezko osagarriekin.**

**Lucía:** Enkarguz lan egiten dugu, baina stock txiki bat ere badugu azoketarako. Arduraz kontsumitzen ahalegintzen gara eta bezeroei ere mezu hori helarazten diegu.

**Mariaje:** Guk sorturiko osagarriak denbora luzean erabiltzekoak dira, oihalezkoekin egindakoak; eta poltsa berrerabilgarriak plastikoekin.

**Arduraz kontsumitzen ahalegintzen gara, eta bezeroei ere mezu hori helarazten diegu**

ko birziklatuagaz. Planeta zaindu behar dugu. Tokiko proiektu bat da gurea, zero kilometro kontzeptuan oinarriturikoa, eta aurre egin ahal diogun neurrian joango da hazten.

**Eskuz egindakoaren balioa berreskuratzeke konpromisoa hartu duzue.**

**Lucía:** Produktu bakoitza eskuz egindakoa da, eskuz egindakoa. Estantatuak diseinatzaile grafiko batek egindakoak dira, BioBizirentzat propio. Gainera, lan bakoitzari behar duen denbora ematea beharrezkoa dela uste dugu. Kalitatezko produktua da gurea, denboran iraungo duena. Modaren menpeko ez dena eta oso erabilgarria.

**Mariaje:** Gehienetan ez da baloratzen eskuz egindako lana. Osagarri bakoitza banan-banan egiten dugu, eta, zerbait txarto badago, desegin eta berriro hasten gara.

**Beti izan duzue jostuntzarako grina?**

**Mariaje:** Ez dut inoiz jostun modura jardun, baina beti gustatu izan zait jostea. Amari 14 urtegar esan nion josten ikasi gura nuela. Amamak arropa josten zuen, berarentzat zein ingurukoentzat, eta nik ere badut grina hori. Lucíari ere harra sartzen ahalegindu naiz.

**Lucía:** Urte bi dira josten hasi nintzela. Amak irakatsi dit dakidana.

**Zaku termikoak dute arrakastarik gehien. Makillajea kentzeko toallatxoak ere harrera ona dute, harridura sortzen dute**

**Ama-alabak izanik, elkarregaz lan egitea berezia da?**

**Mariaje:** Bai, hala da. Gainera, ondo konpontzen gara.

**Lucía:** Elkar ondo ulertu dugu beti. Konfiantza handia dugu geure artean.

**Zein produktu da arrakastatsuen?**

**Lucía:** Zaku termikoak. Makillajea kentzeko toallatxoak ere harrera ona dute, harridura sortzen dute.

**Mariaje:** Aitita-amamek txupetea eramateko zintak erosten dituzte.

**Zein da aurrera begirako erronka?**

**Lucía:** Ez dugu anbizio handirik. Helburua berdina da hasieratik, hobetzen joatea, proiektua sendotzea. Bezeroek produktua ikusi eta ikutu gura dute, eta azoketara joatea ere garrantzitsua da guretzat.

## Lauhortza

Mertxe Mugika  
Balanzategi  
AEK



### Andrazkoak, euskararen zaindari

Euskaraz berba eginda, herri bat osatu dugu euskaldunok: Euskal Herria. Berbakarak nortasunaren adierazgarri dira, eta guk, euskarari eutsita, gure euskalduntasuna adierazten dugu egunero. Eta lan horretan, andrazkoak izan duen eta izaten ari den garrantzia goraiatu gura dut zutabe honen bitartez. Julene Azpeitia, Errose Bustintza, Arantza, Amaia eta Eskarne Aroma ahizpak, Josune Munitxa, Uri Ruiz Bikandi, Marisa Barrena, Nieves Aranoa, Kristina Mardaras eta Durangaldeko beste hamaika emakumeren izenak idatzi ditzaket. Garai desberdinetako Durangaldeko andrazkoak aipatu ditut: batzuek euskara etxeetan gorde eta zabaldu izan dute; beste batzuek lehen euskal eskolak sortu zituzten; aipatu izenen artean badaude Durangaldeko lehen gau eskoletan ibilitako bat baino gehiago. Zalantza barik andrazkoa izan da euskararen gotorleku garrantzitsua, eta zenbait ikerketaren arabera, andrazkoek jarraitzen dute euskararen zaindariak izaten gaur egun ere.

Esaterako, euskararen erabileraren kaleko inkestak generoaren ikuspegiarekin aztertu dituzte, eta nabarmen geratu da andrazkoek gehiago egiten dutela euskaraz gizonezkoek baino. Horretaz gain, EAEko euskaltegiak ikasleen ia %70 emakumeak dira, eta ikasle horien artapenez arduratzen diren pertsona gehienak ere emakumeak dira.

Martxoaren 8a ate joka dugun honetan, eupada handi bat egunero euskararen zaintzaz gain, bestelako zaintzatan diharduten emakume guztiei, bereziki Durangaldeko AEK-ko andrazkoei. Izan direlako gara, eta garelako izango dira!

SAN  
ROKE  
BARRIA

**sukia**  
Zure etxean zaude Estás en tu casa



Proiektu berria Durangon,  
efizientea eta terraza zabalekin.

INFORMAZIOA

946 46 20 41  
www.sukia.com